

IRAGAN GARAIKIDEAREN ARKEOLOGIA

Hurbilpen material eta espaziala Zaramaga langile-auzoan



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

JOSU SANTAMARINA OTAOLA

Historiako Gradua

2014/2015

Sergio Escribano Ruiz

Arkeologia Saila

IRAGAN GARAIKIDEAREN ARKEOLOGIA

Hurbilpen material eta espaziala Zaramaga langile-auzoan

Josu Santamarina Otaola

Euskal Herriko Unibertsitatea

LABURPENA

Franco diktadoreak sustatutako *desarrollismoak* “industrializazioa, immigrazioa eta hiritartzea” hirukotea nagusitzea eragin zuen. 1950 eta 1970. hamarkaden artean, Gasteizko eliteek bat egin zuten ekimen modernizatzaile honi ekiteko eta horrek hirian aldaketa fisiko zein identitario bortitzak zuzentzea esan nahi zuen. Milaka etorkin landa utzi eta hirian finkatu ziren, Udalak eta Aurrezki Kutxak eraikitako auzo periferiko berrietan bizitzeko. Horietako bat Zaramaga da, *desarrollismoaren* “langile-auzo” prototipikotzat har daitekeelarik.

Goitik diseinatutako (eta inposatutako) hiri-paisaia honetan Francoren Erregimenaren dinamika sozioekonomikoak eta ideologikoak islatuta topatzen ditugu. Gaspar Blein arkitektoak zona berdez eta zerbitzuz hornitutako bizi-kalitate maila altuko auzoa sortu nahi zuela eman dezakeen arren, *subjektu subalvernoen* –

proletario, etorkin, *maketo*, *koreano*–gain mantendutako zenbait aurreiritzi dira plangintzetan antzematen direnak. Mugimendu Modernoaren agerizko arkitektura funtzionalistak klase sozialen segregazioaren aldeko apustua estali nahi du, bazterkeriarako oinarri estrukturalak nagusitzen direlarik.

Materialtasuna eta espazioa “irakurriz” gero, *ingeniaritza sozialeko* proiektu moderno baten aurrean gaudela ondorioztatu dezakegu: hiri-eredu honek eragin arautzailea izan nahi zuen biztanleen gain, pertsonen egunerokotasuna arautzeko gurak materialki islatuta geratu diren heinean. Industrializazioaren helburua “produkzioa” ziurtatzea zen bezala, hiritartzeak eta etxebizitza-eraikuntza planifikatuak “erreprodukzioa” gidatzea bilatzen zuten, Erregimenak onargarritzat jotzen zituen paradigmen erreprodukzioa ematearren, alegia – familia-eredu nuklear katolikoa,

langilegoaren subordinazioa, masa-kontsumo gizartea, etab.

Hiritartze-prozesuan dinamika kapitalistak nagusitzen dira –lurzoru kalifikazioak, adibidez–, baina, Frankismoaren kasuan, prozesua autoritarioki zuzenduta zegoelarik, Erregimenaren zilegitasuna bermatzeko erabilia izan zen. Paternalismo kolonial moduko batek ezaugarrituko luke “gasteiztar berri” hauen gaineko diskurtso ofiziala: bizi-kalitate maila onargarri bat eskaintzea, baina segregaziorako eta alienaziorako egiturak sendotzearen truke.

Ikusmen arkeologikoa abiapuntutzat hartuz, auzoaren plangintzaz eta ondorengo bilakaera historikoaz zenbait ideia ateratzeko gai izango gara. Izan ere, Arkeologiak marko teoriko eta metodologia aberatsak eskaintzen dizkigu, *gauzen historia* bat egite aldera. Hala ere, ikerketa-lan hau abiapuntu eta saiakera lez ikusi beharko litzateke, antzeko analisi baten aurrekaririk ez eta zenbait printzipio esperimentalki aplikatu behar izan direlarik. Antzeko frogak egitearen aldeko apustu bezala ere ikus zitekeen lan hau, “hurbilpen” bat den heinean.

Arkitekturaren arkeologiaren zenbait alor (esaterako, sintaxi espaziala edota kronotipologien erabilera

analitikoa) *iragan garaikidearen arkeologia* honetan aplikatuz, iraganaren eta orainaren arteko mugak lausotzea ahalbidetzen da eta “ondare” kontzeptua bera kolokan jartzea posible zaigu. Beraz, arkeologia *tradizionalak* –kontzeptu hau erabiltzea zilegi bada– hain ziurtzat jotzen dituen zenbait oinarri iraultzeko aukera da honakoa, baina, aldi berean, diziplina honen potentzialtasuna aldarrikatzeko euskarria ere bada, betiere alde aurretik egitatzat hartzen diren muga horiek gainditu nahian.

Bukatzeko, konklusioen alorrean, Erregimen autoritario batek inposatutako eszenatokia aztertzea da helburu nagusia, *atrezzoak* antzezpena zenbateraino mugatu, arautu edo zuzendu duen ezagutzeko xedearekin. Egunerokotasunaren programazio hori eraginkorra izan ote zen?

Zenbait aspektu polemikoak edo eztabaidagarriak izan daitezke, baina teorikoki sendoak diren printzipioak errealitatean aplikatzea bilatzen denean gertatzen da hori. Hala eta guztiz ere, saiakera hau egin beharreko zerbait zen, hain zuzen ere, diziplina arkeologikoa hobeki ezagutzeko eta aldarrikatzeko.

AURKIBIDEA

1.- SARRERA	5-6
2.- MARKO TEORIKOA	7-9
3.- ILDO METODOLOGIKOAK	9-11
4.- TESTUINGURU HISTORIKOA	11-14
5.- ESPAZIOA ETA MATERIALTASUNA ZARAMAGAN	15-31
5.1.- Planak, planoak eta ingeniartza soziala	15-25
5.1.1.- <i>Aita</i> : Gaspar Blein.....	15-16
5.1.2.- <i>Seme(-alabak)</i> : subalterno hiritartuak.....	16-23
5.1.3.- <i>Ingeniartza soziala</i> : pertsonak, eszenatokiak eta antzezpenak.....	23-24
5.2.- Materializazioa edo materialtasuna historikoki kokatzea	25-31
5.2.1.- Konbergentziak.....	25-26
5.2.2.- Kronotipologiak.....	27-29
5.2.3.- Etxebizitza-plakak.....	29-31
6.- KONKLUSIOAK	32-33

IRAGAN GARAIKIDEKO ARKEOLOGIA


Hurbilpen material eta espaziala Zaramaga langile-auzoan

«Bazeuden hirian eszenografia urbana osatzeko soilik altxatzen ziren eraikuntzak, zementu hutsezkoak, aterik, leihorik eta hutsunerik gabeko blokeak. “Konkretuak” deitzen ziren planifikazioaren arduradun politikoen hizkera ezkutuan».

Joseba Sarrionandia, “Hiri bazterreko eraikuntza” ipuina (1985).

1.- SARRERA: Zaramaga, “langile-auzoa”

Gasteizen kokatuta dago Zaramaga auzoa. Bere adreilu gorriko eraikinetan bizi den biztanle kopurua 11953koa da, horrek hiriko zazpigarren auzo populatuena dela esan nahi duelarik (Gasteizko Udala 2015). Nazionalitateari dagokionez, biztanleriaren %12a atzerritarra da, baina nazioarteko immigranteen etorrerak ezin du auzoaren saldo demografiko negatiboa eten: iaz 126 biztanle galdu zituen eta honakoa azken



1. irudia: Zaramaga auzoaren kokapena Gasteiz hirian

urteetako joeraren adibide bat baino ez da. 2010ean bere 50. urteurrena ospatu zuen beste bi langile-auzoekin batera, Adurzarekin eta Errekaleorrek, alegia. Baina, ospakizunek nekez estali zezaketen 1960ko errealitatea eta gaur egungoa oso desberdinak direla: etorkinen xurgatze-auzo masibo eta industrialak izatetik, zaharkitze

demografiko betean sartuta dagoen espazio gero eta isilago bat izatera. Hainbat etxebizitza hutsik daude eta bigarren belaunaldiko zaramagatar familia berri gazteek auzoa utzi eta Salburua edo Zabalganara doaz. Zer egin daiteke gainbeherazko prozesu honekin amaitzeko? Ba al du etorkizunik Zaramagak?

Beste auzoen antzekoa da honakoa. Francoren diktadurapean, *desarrollismoaren* garaiko politika industrialista eta modernizatzaileek lanekuaren kontzentrazio masiboak eragin zituzten (Carreras & Tafunell 2010: 345) eta milaka herritar finkatzeko sortu ziren mota honetako espazioak. Bilboko Otxarkoaga edo Donostiako Bidebieta etxebizitza-poligonoak proiektu historiko beraren barne eraikiak izan ziren (Mas Serra 2005: 471). “Langile-auzo” bezala identifikatzen ditugu, euren izaera *instrumentalaz* oso kontziente garelako: fabrikak langileez hornitu behar ziren eta langile horiek nonbaiten sartu behar zirenez, auzo periferikoak eraiki ziren, non eta poligono industrialen ondoan. Izaera instrumental horrek agian azaldu dezake geroko gainbehera demografikoa: eredu *fordistak* laneku gazte eta kualifikazio maila eskasekoa behar zuen, dinamika industrialek halako xurgatze-auzoen existentzia behar zutelarik; baina, beste politika ekonomiko desberdinekin –eredu neoliberala, tertziarizatua, *informazioaren gizarteari* lotuagoa, etab.– auzo hauek zentzua nolabait galdu dute. Hala ere, “hiri-eredua” bera da kontuan hartu behar duguna, pentsamolde horrek definitzen baitu espazioen gaineko ekimena nolakoa den. Hirigintza da pentsamolde espazialaren materializazioetako bat eta horregatik Zaramagaz hitz egitea (bere sorreraz, garapenaz eta gainbeheraz) materialtasuna lantzea da. Zenbateraino garrantzitsua da materialtasuna prozesu historiko hauek ulertzeko? Arkeologikoak zeresanik ote du mota honetako Modernitatearen proiektu bat aztertzeko? Nire ustez, bai, eta materialtasuna bera da Zaramaga “langile-auzo” bezala definitzea ahalbidetzen duena, bere ezaugarri material eta espazialek –sozioekonomikoekin bat eginez– identifikazio hori sustatzen dutelako. Haritik tira egin eta honetan oinarrituko dugu honako lan hau.

2.- MARKO TEORIKOA

«History is not the prerogative of the historian, nor even, as postmodernism contends, a historian's invention. It is, rather, a social form of knowledge; the work, in any given instance, of a thousand different hands» (Samuel 1996: 8).

Oso laburki, gure ikerketaren ardatz teoriko nagusiak zehaztuko ditugu. Hiru dira gure oinarriak eta hirurak pentsamendu arkeologiko sakonenetik eratorriak dira.

Lehenengo eta behin, *iragan garaikideko arkeologia* da zutabeetako bat. Ildo berri eta marginalizat har daitekeen arren, bilakaera sendoa dauka eta etorkizunera begira azpimarratzeko moduko potentziala dauka. Hasteko, “iragana” eta “oraina” kategoria dikotomiko klasikoak baztertzen laguntzen gaitu: erregistro biziak eta kronologikoki hurbilak aztertzen dira, hauek ondare *ezagun* eta aldi berean *ezezaguna* osatzen dutelarik, bizkoitasun hau *absent present* bezala definitua izan delarik, hau da, orainean dagoena, baina aldi berean bere iraganeko kodeak dituena, kode horiek arkeologoen aztertu behar dituztelarik (Buchli & Lucas 2001: 12). Diziplina honen hasieran bertan, etnoarkeologia eta iragan garaikidearen azterketa uztartzen zirelarik, *archaeology of us* bezala definitua izan zen (Gould & Schiffer 1981). Izan ere, bereizketa bat egin beharko genuke *iragan garaikide* eta *iragan hurbil* arteko kontzeptuen artean, “hurbil” kontzeptuak gertutasun kronologiko soila adierazten duen bitartean, “garaikide” hitzak identitatezko konnotazioa daukalako (García-Raso 2010: 61). Horrela, Zaramaga langile-auzo bezala definitzen dugunean, identitatearen arkeologian (Hernando 2002: 46) sakondu nahi dugula azalaratzen da eta hau egiteko marko egokiena *iragan garaikideko arkeologia* da.


Bigarren ardatz nagusia *arkeologia poskoloniala* da eta honek polemika sor dezake. Izan ere, Hirugarren Munduko erregistroetan landutakoa da, baina Mendebaldean ere analitikoki beharrezkoa da (Ayán 2014: 139). Iragan garaikideaz hitz egitea eta Modernitateaz aritzea txanpon beraren bi aldeak aztertzea da: prozesu historiko baten baitan, Antzinako Erregimenaren egiturak deuseztuz joan eta pentsamolde modernoak izan da hegemoniko bilakatu dena eta honetan datza nagusiki *Aro Garaikidea* hain zuzen ere. Modernitatearekin batera, kapitalismoa –eta

globalizazioa— da nagusitu izan den antolaketa sozioekonomiko hedakorra. Prozesu hau ez da “naturalki” ematen eta botere-harremanak izan dira giza-taldeak eta gizabanakoak bertan txertatu dituztenak: hau “kolonizatzea” izan da (Mignolo 2003: 23) Prozesu produktiboaren gaineko kontrolik ez eta xake-jokoaren figuratxo baino izan ez diren horiek dira *subalternoak*. Zaramagako herritarrak dira, besteak beste subalterno horiek: erabakitzeke ahalmen eskasarekin, industrializazio- eta hiritartze-prozesuan piezak baino ez ziren izan. Francoren diktadurak mekanismo autoritario anitz martxan jarri izan zituen landa-eremuko lanekuaren kontzentrazioa bultzatzeko eta arreta gutxi eskaini zaie prozesu historiko horren protagonistei (ikusi 2. irudia). Zaramaga bezalako nukleo sozioekonomiko berri eta goitik zuzenduak *kolonia* bezala ere ezagunak izan dira, kolonia industrialak, alegia. Gasteizen kasuan, geroago aztertuko dugun bezala, *kolonia* zentzua hertsiki jarraitzen da: espazio berri eta “hutsak” kolonizatu egin izan ziren, ekoizpen industrialera zuzenduak izateko. Hau materialki eta espazialki antzemangarria da, kolonia hauen ezaugarri formalek zera azaleratzen baitute:


«un proceso de *colonialismo formal* en todas nuestras ciudades [...], colonialismo fundamentado básicamente en un valor de cambio o de mercado y que ha generalizado de manera uniforme los usos sociales, sin tener en cuenta sus realidades específicas» (Fernández Alba 1986: 20).

Kapitalismoak kolonialismoa eragiten du hainbat zentzutan: merkatu berriak sortuz, pentsamolde kontsumista eta produktibistak eratuz, subjektuen buruaskitasun sozioekonomikoa desegituratuz... Guzti honengatik, landa-eremutik etorritako milaka familia horiek subjektu kolonialtzat har daitezke: lekualdatuak eta eremu berrietan finkatutakoak dira. Antza, euren etxebizitzetan *kolonoak* ziren —Francoren erregimenak berak nabarmenki sustatu zuen etxebizitzaren salmenta hipoteken bidez, espainiarrak *jabe* izatea errazteko (1956ko

Biztanleria erroldatuaren jatorria (1950)



Biztanleria erroldatuaren jatorria (1975)



Moldaketa propioa. Iturria: Zárate Martín (1981:298)
2. irudia

Lurzoruaren Legean xedatzen zen bezala)–, baina erregimen sozioekonomikoarentzat, *kolonizatuak* ziren –proletarioak, etxekoandreak, *maketo* edo *koreanoak*, etab.

Hirugarrenez, *arkeologia soziala* edo *publikoa* da gure azken ardatz teoriko nagusia. Lan honen eratze-prozesuan oinarritzkoa izan da ezagutza partekatuko fluxuak sortzea auzoaren pertsona eta elkarte desberdinekin. Etnoarkeologiak irakatsitako zenbait lezio aplikatu nahi izan dira: ikerketa-objektua, *Bestea*, ondo ezagutzea eta subjektutzat tratatzea beti (González Ruibal 2003: 9). Subjektu horiekin ezagutza partekatuz, ikerketa-lan honen testuinguruan interdiziplinartasunerako joerak nagusitu izan dira (espezialitate desberdineko jendearekin topo egin dudalako) eta konpromiso etiko eta profesional (Shanks 2008: 128) hau gorpuzteko inizatibak martxan daude: Martxoak 3 Elkartearekin topaguneak, auzokide elkarteekin zenbait *world café* (eztabaida-topagune irekiak), etab.

3.-ILDO METODOLOGIKOAK

Lehenengo eta behin, ikerketan erabilitako iturriak dokumentalak, materialak, grafikoak eta kartografikoak izan dira nagusiki. Bakoitzak berezko ezaugarriak dituelarik eta metodologia ezberdinak eskatzen dutelarik, iturri hauen arteko kontrajarpena analitikoki landu nahi izan da. Aipatu bezala, materialtasuna aztertzea da gure xedea eta materialtasunaren pertzepzio eta adierazpen ezberdinak ematen dira, euskarria zein den kontuan hartuz. Udal Artxiboan, Zaramagako auzoaren planoak eta eraikuntza-planak aztertzetik, kalez kale, etxebizitzak eta espazio publikoak analizatzera. Arkitektura eta antolaketa espaziala diskurtso bat bezala uztarturik landu izan dira, bi esparru horiek “arrazionaltasunaren orden zehatza” gorpuzten dutelako (Mañana, Blanco & Ayán 2002: 25). Langile-auzo batek eraikitzaile jakinak ditu – Udaleko tekniko eta politikariak, enpresariak, arkitektoak, hiri-plangintzaileak– eta euren pentsamoldea da materializatuta ikusten duguna: zeintzuk ziren euren aurreiritziak eta ikusmoldeak, euren interesak eta azalpen justifikatzaileak... Horrela, bi lengoia itzultzen saiatu izan gara: paperezko euskarridunak alde batetik, eta, materializazioak, bestetik. Gainera, arkitekturak gizakion jarreran duen eraginaz

kontziente izanik, eraikitzaile horiek gizartearekiko zituzten gura arautzaileak ere antzeman daitezke, “espazioak irakurriz gero” (Bermejo Tirado 2009: 49).

Hiri-espazioak arkeologikoki aztertzeak planifikatutako eta eraikitako “geometria soziala” analizatzea esan nahi du (García Gómez 2009: 64). Hiriak espazio dinamikoak dira eta hiria bera ekintza sozial anitzen emaitza edo “fabrika” da (Galinié 2012: 67). Arkeologiak erreminta jakinak ematen dizkigu espazioen dimentsio historikoa aztertzeko, eta, horrela, naturalizat hartzen ditugun arauak eta inposaketa



3. irudia: Vitoria kalea, Zaramaga (1970).
Iturria: C.V._C.M._Caja Municipal,S.I,SS.6.7_0077

materialak analizatuz gero, desnaturalizatzeko (Carvajal, Martín & Sánchez 2011: 271). Izan ere, “normaltasuna” ere prozesu historiko baten emaitza da eta gizarte-zientzialari bezala, gure ardura horretan sakontzean datza.

Hala ere, mugak eta arazoak ere nonahi sortzen dira. Hasteko, arraroa izan daiteke arkeologia lantzea bere metodo ezagunenak praktikatu gabe –zundaketa, indusketa, etab.–, baina “ikusmen arkeologikoa” da ikerketa honetan aplikatu dena, hau da, materialtasunari eta antolaketa espazialari arreta jartzea. Bestalde, garai honetarako ikerketa baterako metodologia espezifikorik ezta aurrekaririk ez egoteak ere buruhauste galantak eragin izan ditu eta salbuespen eredugarri gutxi batzuk baino ezin izan dira kontuan hartu (Cortés 2009; Harrison 2009; Alonso 2010). Esperimentazioa izan da nagusitu izan dena. Izan ere, zenbait teoria eta metodologia aplikatzen saiatzea izan da lan helburuetako bat.

Baliabide tekniko ez teknologikorik gabe, “deskribapen dentsoa” da gure tresnetako bat (López Carrera 2005: 300): antropologoek egiten dutenaren antzera, deskribapena eta interpretazioa uztartzen saiatuko gara. Hau izango da gure oinarri empirikoaren funtsetako bat.

Baina, egindako saiakera bat ere azpimarratzeko modukoa da: etxebizitza-blokeen kronotipologia batzuk ezartzen saiatu gara, higiezin promozioen planoak, argazkiak, etxebizitza-plakak eta behaketa zuzena bezalako erremintak erabiliz. Kronotipologia hauetan etxebizitza-bloke ezberdinen ezaugarri morfologikoetan erreparatu izan dugu, promozio eta eraikuntza-fase desberdinen arteko antolaketa nolabait ezagutu nahian. Beste alorren antzera, ezaugarri morfologikoak bereziki esanguratsuak dira eta batzuk fosil gidarizat har daitezke: atarien eta leihoen morfologia, etxebizitza-plaka mota, etab.

Sintaxi espazialaren oinarritzko tresna batzuei eutsiz ere (Ayán 2003: 19), konbergentzia-mapa batzuk ere sortu eta kontrajarriko ditugu. Lerro axial batzuen bidez, auzoaren zein espazio hobeki konektatuta dauden grafikoki ikusi ahal izango dugu. Laburki azalduz, metodo honen oinarria zera da: bi puntuen arteko distantzia laburrena lerro zuzena da. Beraz, auzorako sarbide eta bertako pasabide nagusietan lerro zuzenak ezarri ditugu. Lerro horiek topo eginez gero, konbergentzia-puntu baten aurrean egongo ginateke: giza-taldeak batzeko gune esanguratsu baten aurrean egongo ginateke. Dena dela, printzipio eta teoria hauen aplikazioa laster ikusiko dugu.

4.- TESTUINGURU HISTORIKOA

Normalean, ikerketa arkeologikoetan, testuinguru historikoa hasiera-hasieran aurkeztzen da, emaitza materialen azterketatik nolabait urrun. Baina, lan honetan pentsamolde historikoa azpimarratu nahi dela gogoan izanik, informazio historikoa eta materiala elkarren segidan jartzea hobesten da. Iturri dokumentalak, materialak, nahiz grafikoak eta ahozkoak uztartu nahi ditugu eta horregatik dena fisikoki ere hurbil egotea bilatzen da.

Gauzak horrela, Gasteizko industrializazioa da aztertzen ari garen prozesu historikoa. “Euskal industrializazioaren hirugarren eredu” bezala definitua izan da (González de Langarica 2008a), honetan berariazko ezaugarri batzuk erabakigarriak izan zirelako. Faktore geografiko eta fisikoei dagokionez, Gasteizek lurzoru zabal, merke eta lauak eskaintzen zituen, betiere bizkaitar eta gipuzkoar industriaguneei begira –hauetan lurzoria eskasa eta garestia zelarik. Bestalde, maila instituzionalean, Francok

“probintzial leial” izendatu zuen Araba eta horrek bere foru-erregimena mantentzea ahalbidetu zuen: Diputazioak eskumen zabalak zituen azpiegiturei eta politika fiskalei begira.

1954ko urriaren 4tik 9ra, “I Consejo Económico-Sindical de Álava” ospatu egin zen, bertan industrializaziorako abiapuntua finkatu zelarik. Gasteizko elite politiko eta ekonomikoek bat egin zuten eta 1956ko urtarrilaren 9an, Gonzalo Lacalle alkateak “Moción sobre designación de zonas industriales” delakoa aurkeztu zuen (López de Maturana 2014: 195). 1954tik onartua zegoen Hiri Antolamendu Plana delakoaren osagarritzat har daiteke mozio hau. Hainbat poligono industrial eraiki nahi ziren eta horrek lurzoruaren kudeaketa planifikatua eskatzen zuen, lur-kentzeetan espekulazioa ahalik eta hobekien saihesteko. Bestalde, Diputazioak salbuespen fiskalak aldarrikatu zituen Araban kokatzea aukeratzen zuten enpresa industrialentzat (García-Zúñiga 2009: 120). Aipatutako abantailak ustiatu nahi ziren, Gasteizko hazkundera erabat industrial eta modernoa izatea lortzeko eta esan beharra dago prozesu historiko honetan lurraldeko elite eta indargune nagusiek bat egin zutela.

Elizak berak ere bere ekarpena egin zuen prozesu honetan, lanbide hezkuntzako zentroak bultzatuz (Murua, Garmendia & Zabaleta 2013). Eta enpresalgoari dagokionez, Udaleko kargudunekin aliantza sendoak sinatu ziren eta zenbaitetan pertsona berdinak bi esparrutan aritzen ziren (González de Langarica 2008b: 10). Zinegotzi/enpresari hauei begira, oligarkia bateratu eta ekintzaile baten aurrean gaudela esan daiteke, edo beste era batean esanda:

«si el poder municipal se decide por inversiones de patrimonio local, bienes inmuebles, suelo público. Una clase dirigente local que es capaz de todo ello, es una clase que quiere convertirse en empresarial, pública y también privada» (Arriola 1991: 38).

Goitik zuzendutako industrializazio-prozesu honetan –Francoren *garapen polo* delakoaren eredu industrialistaren aitzindari gisa– bi agente nagusi topatzen ditugu: Gasteizko Udala eta Udal Aurrezki Kutxa. Lur-kentzeak martxan jartzeko lankidetzan arituko ziren: Udalak lurzoruaren izendapenak arautuko zituen bitartean, Kutxak bere babes finantzaria eskainiko zuen. Lan honetan, Udalaren beso arautzailea “Negociado de Urbanismo” delakoa izango zen eta honakoak izango ziren bere funtzio nagusiak: lurzoruaren kalifikazioak zuzentzea, lerrokatzeak [*alineaciones*] antolatzea eta hirigintza-planak onartzea. Udalaren menpeko enpresa publiko bat ere sortu egin zen, VIMUVISA izenekoa, 1959tik aurrera martxan jarri zena. Enpresa honek Udalak

erositako “Lurzoru Ondarean” aritzeko baimena izango zuen (*Boletín Municipal de Vitoria* 1959: 47-48). Laburbilduz, Gasteizko Udalak auzune berri eta periferikoak masiboki eraikitzeke oinarri guztiak ezarri zituen. Gonzalo Lacalle alkateak (1952-1957) funtsezko marko hau ezarri zuen bezala, prozesua betearazi eta gorpuztuko duena bere ondorengoa izango da, Luis Ibarra (1957-1966), enpresaria –eraikuntzaren sektorean– eta militarra lanbidez.

Lehenengo eta behin, Gamarra-Betoño poligono industrialak planifikatu egin zen, baina lantegientzako eskulanaren kontzentrazioa ere antolatu behar zen eta horrek auzune periferikoak aurreikustea esan nahi zuen. Aipatutako poligono industrialean, 1963ra arte, 4250 enplegu sortu ziren eta milaka immigrante berri etortzen ziren urtero Gasteizera (González de Langarica 2007: 55). Hasieran, biztanle berri hauetako asko Alde Zaharrean finkatu ziren, baina etxebizitza zahar eta txikietan pilatuta bizi behar ziren.

Halako egoera oker eta kaotikoak saihestu nahian, Gasteizko Udalak zonifikazio politika intentsiboari ekin zion. Aipatu bezala, lehenbizi poligono industrialak aurreikusi ziren, eta, ondoren, “etxebizitza-poligonoak”. Hau bereziki azpimarratzekoa da, planifikatzaileen pentsamoldeari dagokionez, langileen bizitokia produkzioarekiko zerbait “osagarria” baitzen. Lehentasuna ekoizpenak zuen, eta, gero,



4. irudia: Gasteizko autoritateak Zaramagako maketa behatzen Iturria: Gasteizko Udal Buletina (1959/01/01)

laneskuaren bizimoduak. Zaramaga auzoa bera Gamarra-Betoño industrialdearekiko osagarri bezala proiektatu zen eta hori dokumentuetan antzematen da: planoetan, hautatutako 267456 km²-ko esparrua “tolerancia de viviendas e industrias” bezala definitua izan zen (Arriola 1991: 286). VIMUVISAK kudeatuko zuen eraikuntza-proiektuaren atal nagusia eta beste esparru batzuk Aurrezki Kutxak zuzenean egingo zituen “Asociación N^a S^a Virgen Blanca” delakoaren bidez. Udal administrazioaren

esku-hartze zuzen hau 1956ko Lurzoruaren Legearen printzipioak jarraituz egingo zen –honek hirigintza funtzio publikotzat hartzen baitzuen, betiere planifikazioa paradigmatzat hartuz (Fernández de Betoño 2014: 104). Planifikazioaren zentzu honek hiriaren banaketa funtzional eta segregatu zorrotza sustatzen zuen: hiriak era armoniatsuan funtzionatu beharko zuen, pieza bakoitza engranajearen txertatuta egonda. Honakoa zen “kapitalaren hiri-makina”, hau da, hiria enpresa baten antzera kudeatzen zuen oligarkiak.

Aberastasuna lortzea zen prozesu honen helburu nagusia, baina arrakastatsua izateko, lanekuaren kontzentrazioa –hau da, hiritartze edo urbanizazio prozesua– kontrolpean izatea beharrezkoa zen. Izan ere, “espazioaren produkzioa” delakoa ematen denean –lurzoru kalifikazioekin, lerrokatzeekin, eraikuntza-lanekin, etab.–, beste produkzio eta erreprodukzio harremanak garatu ahal izateko oinarria ezartzen da. Oso eskematikoki azaltzearen, lantegietan “produkzioa” –ekoizpen kapitalista– ematen den bezalaxe, etxebizitzak funtsezkoak dira “erreprodukzioa” –erlazio “biofisiologikoen” garapena: familia, adiskidetzak, auzotasuna, etab.– eman ahal izateko (Lefebvre 2013 [1974]: 91). Beraz, etxebizitza-poligono baten sorrera prozesu kapitalista jakin batean kokatu beharko genuke. Gasteiz hiriko periferian kokatua izatea ere ez zen ausazko aukera bat izan. Udalaren lehentasuna lurzoru merkeak, Bizkaia eta Gipuzkoarekin ondo lotuak eta industrialdearekiko osagarriak eraikitzea zen. Zaramagaren izaera periferikoak hirigunearekiko urrunduko zuen, baina garrantzitsuena industrialdeetan ekoizpena ziurtatzea zen. Aipagarria da ere 1954ko uztailaren 15eko legeak oso marko egokia ezartzen zuela etxebizitzaren arazoa konpontze aldera, errenta mugatuko etxebizitzak xedatzen baitzituen. Eta errenta mugatuarena izango zen Zaramagarako jarraituko zen formula.

5.- ESPAZIOA ETA MATERIALITASUNA ZARAMAGAN

5.1.- Planak, planoak eta ingeniari-tza soziala

«El plan pondrá a la sociedad moderna al pie del muro, indicándole su razón de vivir, los objetivos de su acción durante un primer ciclo, el ciclo de la armonía en la civilización maquinista» (Le Corbusier, op. cit. in Ramón 1974: 103-104).

5.1.1.- Aita: Gaspar Blein

Gaspar Blein arkitektoa izan zen Zaramaga auzoaren Plan Partziala¹ diseinatu zuena. Pertsonaia honek diktaduraren alor teknokratiko eta autoritarioena ordezkatu luke: Bleinen lan ospetsuenetako bat Murtzia hiriaren zabalgunea izan zen, horretan, hirigune islamiarraren ondarea erabat suntsitu zuelarik (Nicolás 2003: 91). “Regiones Destruídas” zerbitzuko *Reconstrucción* aldizkarian ere aritua zen eta bertan arkitektura espainiarrak “Bat eta Nazionala” izan behar zuela aldarrikatu zuen (Box 2011: 15). Autarkiaren arkitekturaren eta Mugimendu Modernoari lotutako *desarrollismoaren* arteko trantsizioa da bere obran antzematen dena, Zaramagan bereziki. *Hirigintza organikoa* zen paradigma nagusia, aipatu bezala, auzoek [*neighbourhood unit*] era harmoniatsuan “hiri-makinaren” barne funtzionatu behar zutelarik (De Terán 1982: 354). Langileriarentzako auzune idealak aurreikusten ziren, hauek bizi-baldintza egokiak izan ditzaten, baina, betiere, ordenaren, bake sozialaren eta subordinazioaren truke.

Zaramaga auzoaren *aitak* 1957an aurkeztu zuen bere proiektua eta laster “Blein Plana” bezala ezagutzen hasi zen. 1958an Udalak onartu zuen, baina 1959ra arte itzarotea beharrezkoa izan zen Etxebizitza Ministerioak bere onspena emateko. Diseinuari dagokionez, hainbat ideia orokor azpimarratzeko modukoak dira. Lehenengo eta behin, *open planning* paradigma arkitektonikoa da nagusitzen dena: bloke irekiak proposatzen dira, ilarak osatuz edota kaleekiko diagonalak antolatuz, Atenaseko Gutun lecorbuserianoaren printzipioak itsuki jarraituz (Le Corbusier & Sert, 15-18. printzipioak). Zona berde eta ekipamendu anitz –parrokia, gizarte-etxea, merkaturia,

¹ Zaramagako Plan Partziala (1957-58): AMVG 0.4/2337-5. Planoei dagokionez: AMVG 0.4/2337-4.

eskolak, kirolguneak– zehazten dira, baina 20 urte itxaron beharko ziren hauek benetan materializatu arte.

Lau fase nagusi aurreikusi ziren Zaramaga eraikitzeke plan partzialean. Oinarrizko urbanizazioa eta ekipamenduak ezartzeko lau urte aurreikusten ziren bitartean, eraikuntza-lanak bost urtetan egin nahi ziren. Hala ere, Zaramagako etxebizitzaren eraiketa 1975era arte luzatuko zen. 1600 etxebizitza proiektatu ziren, horietan 7500 biztanle inguru bizitzeko.

5.1.2.- *Seme(-alabak)*: subalterno hiritartuak

Bestalde, Blein Planak klase sozialen arteko bereizketa zehatza ezartzen zuela azpimarratzeko modukoa da (ikusi 5. irudia). Etxebizitza-kategoria ezberdinak eraikiko ziren, klase sozial bakoitzaren arabera. Horrela, Zaramagako auzoaren barruan ere segregazio espaziala ematea aurreikusi eta planifikatu egin zen. Arrazoi tekniko eta ideologikoengatik, segregazio espazial honek beste inplikazio batzuk zituen.


5. irudia

KLASE SOZIALAK ETA ETXEBIZITZA KATEGORIAK (Blein Plana, 1957)		
Klase soziala	Definizioa	Etxebizitza kategoria
“Clase modesta”	“Peones y empleados modestos”	3. kategoria (1360 pta./m ²)
“Clase media”	“Obreros especializados y empleados medios”	2. kategoria (1600 pta./m ²)
“Clase media acomodada”	“Funcionarios y profesionales liberales”	1. kategoria (1840 pta./m ²)
“Clase acomodada”	“Directores de empresas. Profesionales distinguidos”	Errenta mugatuko etxebizitzak baino haratagoko kategoria

Hasteko, plangintzan bertan aipatzen den bezala, auzoaren arrakastarako *conditio sine qua non* delakoa iparraldeko haizeengandik babestea zen. Izan ere, hezetasunarekin eta haize hotzekin batera, Zaramagaren iparraldean Gamarra-Betoño industrialdea kokatuta zegoen, garai horretan, hiriko enpresa handienak bertan kokatuta zeudelarik –*Forjas Alavesas* siderurgia, eta, gero, *SAFEN-Michelin* gurpilgilea ere– eta horrek zera esan nahi zuen: ipar haizeek lantegietako kea etengabe garraiatuko zutela auzoan barrena. Zein izan zen Blein arkitektoak proposatutako soluzioa? Etxebizitza-blokeen ilara luzeak ezartzea iparraldean, harresi moduko bat egituratuz. Lantegietatik

hurbilen egongo ziren blokeak ziren honakoak eta horregatik altuak eta trinkoak izan beharko ziren, baita langile-masa ugarietzako bizitoki masiboak ere. Horrela, auzoaren iparraldeko eremuan, bizi-baldintza okerrenak ematen ziren lekuan –ipar haizea, hotza eta hezetasuna, kutsadura, etab.–, 3. kategoriako etxebizitzak ezarriko ziren. Langile pobreenak bertan bizi beharko ziren, eurenak etxe txikiak eta okerren antolatua izango zirelarik. Hala ere, plan partzialean, diskurtsoa optimistagoa (eta paternalistagoa) da: langileentzat onuragarria zen guzti hori, horrela, euren lantokitik hurbil biziko zirelako.

1. eta 2. kategoriako etxebizitzak (“clase media acomodada” eta “clase media”) hegoalderanzko norabidean proiektatu ziren, zerbitzuengandik eta hirigunearengandik




hurbilago. Merkatua, dendentzako espazioa, parrokia, gizarte-etxea eta kirolguneak –tenis-pista batzuk ere aipatzen dira– auzoaren hegoaldeko zonalde honetatik gertu aurreikusi ziren, gune zentraleko zona berde handietan. 5. irudian ikus daitekeen bezala, “clase acomodada” delakoarentzat, “errenta mugatua baino haratagoko kategoria” aurreikusten zen. Hau da, etxebizitza hauek merkatu askearen arauen arabera saldu eta erosi ahal izango ziren, errenta mugatuaren markoak ezarritako arau sozioekonomikoez at. Kalitate handiko bloke hauek hirigunetik gertuen ezartzea proiektatu zen, bizi-maila altuagoko kideak hirian hobeki integratuz.

Faseen maparekin konparatuz gero (ikus 7. irudia), hegoaldeko esparru hau azken faseari zegokiola ikus daiteke. Orokorrean, Zaramagako eraikuntza-prozesua iparraldetik hegoalderako norabidea jarraituz planteatua izan zen, oso arrazoi simple batengatik: urbanizatutako lurzoruaren prezioa are gehiago handitzeko modua hirigunearen erdialdetik gertuago egotea da, eta, beraz, periferiatik zentrorra eraikiz gero,

egindako promozio berria aurrekoa baino garestiagoa izatea lortzen zen. Horregatik hain zuzen ere, azken faseko blokeak errenta mugatuko etxebizitzan markotik kanpo egitea proposatzen da: hauekin etekin handiagoak lortu ahal izateko.

Lehen aipatu dugun bezala, Gasteizko Udalak ofizialki espekulazioa saihestu nahi zuen. Zenbaitetan gatazkatsuak izaten dira lur-kentzeak eta lurzoru izendapenak, aurreko jabeek ahalik eta etekin handienak lortu nahi dituztelako. Hau zen Udalak saihestu nahi zuena. Baina, etxebizitzak saltzeari zegokionean, administrazio publikoa bera promotorea eta saltzailea zenean, etekinak lortzearen irizpidea kontuan hartzeko modukoa zen. Honakoa



da, berriz ere, aipatutako “kapitalaren hiri-makina” zentzua delakoa: espazioa “sortzea” edo “produzitzea”, lurzoruaren balio gehitzeaz profitatzeko, prozesu kapitalista honetan lurzoruak, *erabilera-balioaz gain, truke-balioa* ere lortzen duen heinean (Harvey 2014 [1973]: 159). Guzti honengatik, auzoaren antolaketa espaziala eta materiala aztertzen dugunean, artikulazio kapitalista bat da ikusten duguna, *gurean*, diktadura autoritario baten berezko ezaugarriekin uztarturik.

Izan ere, Francoren Erregimenean emandako inflexio-puntuak kokatu behar dugu geure burua: 1959an –Blein Plana behin-betiko onartzen denean–, Diktadurak *Egonkortze Plana* delakoa martxan jarri zuen, ekonomiaren liberalizazioari eta *desarrollismoari* ekiteko. Espainian ezarriko diren dinamikak gero eta antzekoagoak izango dira Mendebalde kapitalistaren dinamiketikiko. *Kapitalismoaren Urrezko Aroan*, herrialde mendebaldarrek “Ongizate Estatu” delakoa bultzatuko dute eta gizarte-etxebizitza delakoetan inbertsio handiak egingo dira (Fernández de Betoño 2010: 10), baina zer gertatu zen Francoren diktadurapean? Ikusi dugun bezala, 1954ko uztailaren

15eko legeak errenta mugatuko etxebizitzaren promozioa arautu zuen eta 1956ko Lurzoruaren Legeak hirigintza “eskumen publiko” lez definitzen zuen. Etxebizitzarako irisgarritasuna zabaltzeko neurriak izan ziren hauek, landa-exodoaren ondorioz hirietan finkatzen hasi ziren espainiarrei *jabe* izateko aukera eskaintzeko. Jakina da jabe txikien giza-talde zabalak izateak bake soziala eta egonkortasuna mantentzen lagundu dezakeela.

Gerraostearen eta Autarkiaren estutasunen ostean, Erregimena baino ezagutzen ez zuen belaunaldi gaztea martxan zegoen eta beharrezkoa zen horiek ere inposatutako ordenean txertatzea. Francok berak bere zilegitasun-iturburua aldatu behar zuen (Domènech 2003: 93): “gerra garaile” izatetik, “bakea eta oparotasunaren arduradun” izatera. Zilegitasun aldaketa horren oinarria *desarrollismoa* izan zen. Milaka langile “kontsumitzaile” bihurtuak izan ziren, Erregimenarekiko mendeko izaten jarraitzeko, baina oraingoan, bizi-kalitateko oinarri minimo batzuk bermatuz. Sinboloen eta diskurtsoen alorrean ere aldaketa nabarmenak eman ziren, eta, ildo horretan, 1964. urtea inflexio-puntu argia izan zen.

“XXV Años de Paz” izeneko ekitaldien programa zabala antolatu zen urte horretan, abertzaletasunaren, nazional-katolizismoaren eta modernizazioaren aldeko irudiek bat egin zutelarik. Gure ikerketari dagokionez, 1964. urtean, Zaramagako lehen etxebizitza-promozioaren inaugurazioa eman zen, noren eta Francoren eskutik! Abuztuan, diktadoreak Gasteiz hiria bisitatu zuen eta *NODO*ak bere ibilbide osoa jaso egin zuen². Hasteko, Zaramagako ipar-ekialdeko muturrean kokatuta zegoen esnezentrala inauguratu egin zuen: automatizazioaren eta modernizazioaren onurak dira dokumentalean azpimarratzen direnak, espainiar industrializazioa azkarraren ikur bezala aurkeztuz. Bestalde, auzoko lehen 500 etxebizitzaren inaugurazioa antolatu egin zen eta sekuentzia labur horretan, Zaramaga bezalako auzo batek Erregimen autoritario baten makineria erraldoiean bete zuen funtzioaz ohartzeko gara. Esne-zentralaren ondoko lehen bloke-promozio berrien irudiak erakusten zaizkigu, baita jendea txaloka eta pozik. Eszenatoki oso bat antolatu da eta hainbat kolonia nekazari eta industrialetan emandako eszena bera antzeztu egingo da. Franco tronu moduko batean eserita dago, bere atzean “V́ctor” ikurra dagoelarik. Orduan, gizonezko trajedun batzuk diktadorearengana

² Bideoa *online* euskaragarri dago: <http://www.rtve.es/filmoteca/no-do/not-1126/1468756/> (2015eko ekainaren 15ean kontsultatua).

aurkeztu, eskua estutu eta Francok eskaintzen dizkien dokumentu ofiziala jasotzen dute. Zera dio *NODO*aren ahotsak:

«Entre las aclamaciones de gratitud, el Generalísimo va haciendo entrega de los títulos de propiedad a los usufructuarios. [...] Estos grupos de viviendas disponen de espacios verdes y parques infantiles con arreglo a las exigencias de la higiene pública moderna».



8. irudia: Francok etxebizitzaren jabetza-tituluak eskaintzen dizkie egoiliar berriei

Iturria: C.V. _C.M. _Caja Municipal, S.2, S.3.8_0023

Jabetza-titulu horiek eskuratzea ohore handia zen. Estatu-buruak berak ematen zituen, bere dohaintza pertsonala balitz bezala. “Usufructuario” hitza aipatzean, mendekotasunezko konnotazioa azpimarratzen da, Estatuak emandako dohaintza hori *erabiliko* dutelako egoiliarrek, baina euren baliabideen gaineko kontrolrik gabe.

Bestalde, “con arreglo a las exigencias de la higiene pública moderna” aipatzen denean, Modernitateari erreferentzia egiten zaio berriro ere. Honakoa, laburki esanez, auzune periferiko eta marginal guztien auzi historikoa dela esan daiteke: XIX. mendetik, eliteetako kideek euren “*kolonia* zibilizatazaileak” sustatu zituzten – karitatezko jantokiak eta orfaindegia, esaterako–, auzune horietan degradazioa eta zikinkeria konpontzearen. Erreformatzaile sozialen eskakizun nagusienetako bat zen

honakoa, eta, higiene publikoarena, hirigintzaren historian gehien landutako gaia dela esan daiteke. Eta azpimarratzekoa da, higienistek bi ideia nahasteko ohitura izan dutela historikoki: alde batetik, autoritateen partetik auzo xeheentzat bizi-baldintza egokiagoak eskatzea, eta, bestetik, proletalgoarengan fede eskasa izan eta aurreiritzi sendoak edukitzea euren jarreraren inguruan (Belford 2006: 136). Paternalismo kolonial baten antzeko ikuspegizat har daiteke eta hauxe da, hain zuzen ere, aipatutako eszena horretan topatzen duguna, noiz eta Francoren Erregimenak bere aurpegia modu samurragoan aurkeztu nahi zuen garaian.

Baina, nola da posible higiene publikoa bermatuta egotea, lantegien kea sufritu behar duten etxebizitza-blokeez aritzen garenean? *Forjas Alavesas* enpresa siderurgikoak zenbateraino kutsatzen zuen antzemateko, hainbat ebidentzia ditugu. Grafikoki ikustearren, 1968ko ortoirudi batean, oraindik eraikuntza-prozesu betean sartuta dagoen Zaramaga antzematen dugu, ipar-ekialdeko blokeak nolabait lausotuta agertzen direlarik: kea da irudia lausotzen duena.



9. irudia: 1968ko ortoirudia (goian, eskuineko aldean, *Forjas Alavesas* en
kearen etxebizitza-blokeetan) Iturria: IDE-Álava

Froga dokumentalei dagokionez, 1976ko urtarrila eta otsaila artean, hainbat elkarrizketa egin izan ziren zenbait gasteiztar auzotan eta Zaramagako biztanleei euren arazoei buruz galdetzean, zera erantzuten zuten: kezka gehien pizten zuen auzia kutsadurarena zen eta horri aurre egiteko komisio espezifiko bat sortua zuten auzokideek (Ortiz Llana 1976: 67). 1976ko txostena dela azpimarratu behar da. Urte horretako lehen hilabeteetan, hainbat greba antolatuta zeuden –bi greba orokor otsailean– eta langile-borroka gori-gorian zegoen, azkenik, martxoaren 3ko sarraskia eman zen arte (Carnicero 2009: 281). Beraz, deigarria da hain testuinguru nahasian, kutsadura oraindik arazo larriena lez ikusi izana.

Antolaketa espazialak eta materialtasunak hiritarren egunerokotasunarengan eragina izatea bilatzen zuten. Aipatu bezala, “erreprodukzioa” ezinbestekoa da “produkzioa” garatu ahal izateko. Egunerokotasunaren eszenatokia antzezpenaren oinarrietako bat da eta horrexegatik, hain zuzen ere, aztertzen dugu espazioa. Azken honi dagokionez, espazio pribatuarekin batera, erreprodukziozko harremanak garatzeko beste ezinbesteko eszenatokia espazio publikoa da. Honetan ikur eta esanahi desberdinak tartekatu, gainjarri eta elkar kontrajartzen dira ere. Zaramagaren kasuan, *goitik* zuzendutako plangintza hertsitari jarraituz, hainbat sinbolo heldu zaizkigu.

Kale-izendegia da, materialtasunaren eta esanahien aztertzaile bezala, kontuan hartu beharreko elementuetako bat. Zaramagako kaleen izenak 1960ko ekainaren 8an ezarri ziren. Arabako zazpi koadrilen izenak jarri ziren³: Añana, Ayala, Laguardia, Mendoza, Salvatierra, Vitoria eta Zuya. Hau Udalaren *alavesismoaren* adierazpen bezala hartua izan da (López de Maturana 2013: 218). Izan ere, frankismoa bezalako erregimen zentralizatzaile batean, foruzaletasuna eta eskualdearekiko nolabaiteko mirespen ohiturazalea onargarritzat hartzen ziren. Dena dela, kale-izendegi hori ez zen ausazko aukera bat izan. Zaramaga auzoaren populazio motarekin lotu beharko genuke: Arabaz kanpoko biztanleekiko keinu bat izan daiteke, nolabaiteko integrazioaren ideia bati jarraituz.

“Integrazio kulturala” bultzatzeko osagai bat izan zitekeen, baina atxikitze edo txertatzearen kontzeptualizazioak immigranteen izaera subalternoa sakontzen laguntzen du (Borra 2013: 40). Gainera, espazio publikoaren elementuek biztanleen identitatearekiko nolabaiteko ordezkariak suposatzen beharko lukete. Kaleen izenek,

³ Frankismoan erabilitako izenak landuko ditugu, euskarazko itzulpenak baztertuz, horrela, Erregimenaren dinamika linguistikoak ere nolabait islatzeko.

esaterako, hiritarrentzako garrantzitsuak izan diren elementuak jaso beharko lituzkete. Baina, kasu honetan, *goitik* inposatutako neurria izango litzateke, identitate probintzialaren barne uniformizatu nahian, subjektu subalternoen ahotsa isilaraziz. Antzeko zerbait gertatuko litzateke etxebizitza-plakekin, geroago aztertuko dugun moduan.

Dena dela, espazio pribatuari dagokionez ere, plangintzak zenbait xedapen ezarri zituen. Aurreikusitako etxebizitzaren %76,34a “tipo pequeño” kategoriakoa izango zen, ikusi bezala, gehienak errenta mugatukoak zirelarik. Azalera eskasekoak izateko planifikatuak izan ziren eta oinarritzko espazioak baino ez zituzten: sukaldea, egongela, komuna eta bi logela. Modernitatean, espazio publikoa maskulinitateari lotzen zaion bitartean, espazio pribatua feminitatearekin lotzeko joera dago (Hernando 2002: 187-188). Beraz, hain espazio mugatuetan bizi beharrak ere “emakumeentzako espazioa” zenbateraino ahula eta pobrea zen erakusten du. Izan ere, etxebizitzaz ari garen heinean, erreproduzioaz ari gara –ohiturez, adiskidetasun erlazioez, familiez, etab.–, eta era berean, erreproduzioaz hitz egitea, genero-zapalkuntzaz hitz egitea da. Blein Planean askotan gorai patzen da produkzioaren zentzua, langileak –gizonezkoak– euren lantegien ondoan bizi *behar* ziren heinean. Kapitalismoaren zentzu patriarkalaz ari gara. Klase sozialen kategorizazioan ikusi bezala, *enplegua* da sailkapenerako irizpide nagusia, baina, betiere, soldatapeko enpleguaz ari gara. Frankismoan zehar oso ohikoa zen emakumeek etxean lan egitea, esate baterako, jostun-lanak egiten, baina mota horretako jarduerak ez ziren estatistika ofizialetan jasotzen (Sáenz del Castillo 2009: 226). Berrero ere, zenbait prozesu historikoetan bezala, emakumezkoen lanaren “izaera ikusezina” da antzematen duguna.

5.1.3.- Ingeniaritza soziala: pertsonak, eszenatokiak eta antzezpenuak

Guzti honengatik, *ingeniaritza sozialeko* proiektu baten aurrean gaudela azpimarratu beharra dago. *Goitik* zuzendutako prozesu bat dela azaldu dugu jada, baina horrez gain, egunerokotasuna zuzentzeko borondate argia erakutsi zuten planifikatzaileek: klase sozialen araberrako segregazio espazialek, etxebizitza-blokeen materialtasunera. Landa-eremutik etorritako familia gazteak Erregimenaren dinamika kapitalista eta autoritarioetan integratzea bilatzen zen, nola eta etxebizitzaren salmenta estimulatuz: hipoteken bidez, dependentziazko erlazioak sustatzen ziren. Gainera, jakina da kontsumoaren gizartea estimulatuz ere, familiengan eros-ahalmenarekiko presioa

handitzen zela. Soldata errearen igoera nahikoa ez zelarik, familiek euren diru-sarrerak handitzeko aukeratzen ohi zuten bidea enplegu anitz izatea edota lanordu extrak egitea izaten zen. Horrek aisialdirako tarte mugatua utziko zuen, baina Zaramagako ekipamenduei begira, aisialdirako aukerak espazialki ere desberdinak zirela antzeman daiteke. Zerbitzu gehienak auzoaren erdialdean aurreikusi ziren arren, iparraldeko blokeen ilaretatik urrunago zeuden eta 3. kategoriako etxebizitzetako biztanleek distantzia luzeagoak egin beharko zituzten aurretik hauetara ailegatzeko.

Eta zergatik azpimarratu *ingeniaritza sozialeko* proiektuaren zentzu hori? Pertsonen ohitura eta pentsamoldeengan aldaketak eragin nahi zirelako. Lan honen hasieran, Fernández Albak *kolonialismo formal*a aipatzen den testuan, egitura formalek gizakien egunerokotasuna arautzea bilatzen zuela aipatu izan da. Zaramagaren kasuan, eszenatoki konplexu eta planifikatua da arautze hori bideratzen duena. Ez gaitu harritu behar materialtasunak gizakiongan duen eragina: Jeremy Bentham-ek *panoptiko*arekin demostratutakoa da, gero Foucault-ek analizatu zuen bezalaxe. *Panoptiko*aren zentzu errepresibo hori da Zaramagako antolaketa espazial eta materialean topatzen duguna eta planoez gain, kalez kale ere aztertuko dugu.


Azkenik, arkitekturaren eta hirigintzaren izaera arautzailea azpimarratzea beharrezkoa da. Mugimendu Modernoaren pentsamolde arkitektonikoak “funtzionalismoa” aldarrikatzen zuen eta itxura zientifiko eta hotz batek estaltzen zuen. Nolabaiteko arkitektura “objektibo” bezala aurkezten zen eta hoztasun hori da Blein Planean topatzen duguna: dena ondo neurtuta dago eta “gauzak azaltzen zaizkigun bezala izan *behar* direla” dirudi. Hala ere, arkitekturaren ikusmolde vitrubiarra gurera ekarriz (Azkarate 2008: 12), arkitekturak (baita ustez hotza eta adierazkortasunik gabea dena) hiru alor batzen ditu. Lehenik, *firmitas* delakoak lan arkitektonikoaren inguru sozioekonomikoaren islada jasoko luke. Bigarrenik, *utilitas* delakoak funtzionaltasuna adieraziko luke, baina funtzionaltasun hori testuinguru batean kokaturik –bere botere-mekanismoekin, esanahiekin, agenteekin, etab. Eta azkenik, *venustas* delakoa ideologiaren materializazioa izango litzateke. Beraz, planifikatzaileen ideologia da Zaramaga bezalako proiektu eraikitzaile eta arautzaile. Izan ere, Foucaultek *panoptiko*az esan bezala:

«El Panóptico [...] debe ser comprendido como un modelo generalizable de funcionamiento; una manera de definir las relaciones del poder con la vida cotidiana de los hombres» (Foucault 1990 [1975]: 208).

5.2.- Materializazioa edo materialtasuna historikoki kokatzea

5.2.1.- Konbergentziak

Materialtasuna aztertzeko bi iturburu nagusiz elikatu izan gara: dokumentuez eta ebidentzia materialez. Idazkietan eta kaleetan ikusitakoa kontrajartzeko unea iritsi da, baita iraganaren eta orainaren arteko muga lausoetan barrena aritzeko. “Espazioak irakurtzen” saiatu gara eta horretarako sintaxi espazialaren (*space syntax*) zenbait ildo jarraitu ditugu (Bermejo Tirado 2009: 51-52). Arkitekturaren arkeologian gero eta gehiago erabiltzen diren tresna analitiko batzuk eskaintzen dizkigu sintaxi espazialak. Hauek erabili ahal izateko zenbait ezagutza eta baliabide tekniko izatea ezinbestekoa da. Dena dela, hurbilpen xume bezala planteatutako ikerketa-lan honetan, esperimentaziorako tartea ere egon da. Horrela, auzoarekiko iragazkortasuna eta ikusgarritasuna ebaluatzeko, konbergentzia-mapa batzuk egin izan ditugu. Zein izan da jarraitutako printzipio teoriko nagusia? Lehen aipatu bezala, bi puntuen arteko tarterik motzena lerro zuzenaren bidez lortzen dela. Horrela, lerro axialen bidez, hasteko, auzoko sarbide eta pasabideak ezagutzeko balio izan zaizkigu mapa hauek.



10. irudia: Konbergentzia-mapak, lerro axialen bidez

Zer ondorioztatu dezakegu mapa hauetatik? Nahiko patroï antzekoak jarraitzen dituztela begi-bistan antzematen da. Mendebaldeko eta hegoaldeko blokeen eremuak dira konbergentzia kopuru gehienak aurkezten dituztenak eta horrek bertan



Fig. 11: Etxebizitza-blokeen azpiko pasabideak (Goian) Laguardia, 24. (Behean) Laguardia, 40




komunikabide irekiak, zuzenak eta anitzak daudela esan nahiko luke. Beste muturrean, auzoaren iparraldeak eta ipar-ekialdeak isolamendurako joera espazial handiagoa aurkezten dute. Blein Planean aztertu bezala, honakoa ez da ausazko fenomeno: ilara luzeak planifikatu egin ziren, blokeekin harresi modukoak eratzeko eta horrela auzoa ipar haizeengandik babesteko. Ipar-ekialdeko sektorean, bi pasabide baino ez daude –Laguardia kalean, 40. eta 24. zenbakiak– eta hauek oinezkoentzat baino ez dira, etxebizitza-blokeen azpitik igarotzen direlarik. Beraz,

Gamarra-Betoñoko industrialdera igarotzeko, langileek egunero euren etxebizitzaren azpian igarotzen ziren, planifikatutako pasabide horietatik, alegia.

Hiriarekiko irisgarritasun eta konbergentzia-maila altuagoa erakusten dute mendebaldeko eta hegoaldeko sektoreek. Beraz, espazialki hirigunean integratuago daudela pentsa daiteke, baita dinamika sozialei begira ere, giza-taldeak biltzeko aukera egokiagoak eskaintzen direlarik. Iparraldeko blokeen ilaretan, ordea, konbergentziak mugatuak izanik, “bilera soziala” ematea zailagoa izango omen da eta hiriarekiko integrazioak ere oztopo gehiago ditu. Behaketa zuzena eginez, zera kontrajar daiteke: iparraldeko eta ipar-ekialdeko sektoreetan askoz ere zerbitzu gutxiago antzematen dira eta Zaramagako denda, taberna, etab. gehienak mendebaldeko eta hegoaldeko sektoreetan kokatzen dira, hauetan dinamika sozialerako egon daitekeen antolaketa espazial egokiagoa aprobetxatuz.

5.2.2.- Kronotipologiak

Esperimentaziorako abiapuntu aberatsa eta konplexua eskaini duen beste ildo enpirikoa kronotipologiaren ezaugarritzea izan da. Zaramaga auzoak oso irudi homogenoa eta uniformeak eskaintzen du lehenengo begi-bistan, baina sakonki aztertuz gero, etxebizitza-blokeen aniztasun tipologikoa oso nabarmena da. Hala ere, zaila izan da aniztasun hori antolatzen



12. irudia: Etxebizitza-blokeak, kronotipologiaren arabera

saiatzea eta zenbait ataletan erreparatzea beharrezkoa izan da: atarien eta leihoen morfologia, fatxaden bolumenak, zabalera eta altuera, beste blokeekiko harremana... Higiezin promozio ezberdinak bereizteko tresnatzat har daiteke, baina kronologiari dagokionez, ezinezkoa izan da kronotipologia hauek tresna eraginkorrak izatea. Datazio erlatiborako aukerak eskaintzen dituzten arren, eraikinetan egindako erreforma eta aldaketa desberdinek azken emaitza desitxuratu egin izan dute askotan. Beraz, beste baliabide tekniko eta metodologikorik garatu ezean, honakoa saiakera soiltzat har daiteke.

Sei etxebizitza-bloke mota nagusi bereiztea posible izan da. Aldaketa batzuk gorabehera, Blein Planean aurreikusitako faseen arabekoak dira. Atarien alorrean, nolabaiteko eboluzioa azpimarratzeko modukoa da. Orokorrean, oso forma sinpleetatik garatuz doaz, eta hasieran, kalearen eta barne-espazioaren arteko bereizketa oso xumea zen bitartean, denbora igaro ahala, atariak bereizketa zorrotzagoa garatuz joango dute. Interpretatiboki, klase sozial eta etxebizitza-kategorien banaketarekin lotu genezake: maila sozioekonomiko baxuagokoetan, planifikatzaileentzat, intimitatea ez zen lehentasuna, baina maila altuagokoentzat kontuan hartu beharreko aspektua izan zen. Esate baterako, Laguardia kaleko bloke askotan -1. fasekoak eta 3. kategoriakoak

(laranzaz, mapan)– ataria atea baino ez da, dintel simple batez hornitua, baina, Vitoria kaleko 24-34. zenbakien arteko promozioan, atariak pasabide pribatu baten barne daude, pasabide hori hesi batek ixten duelarik.


13. irudia: Atari mota nagusien tipologia



1) Dinteldun simplea



2) Markodun simplea



3) Dinteldun zabala



4) Albokoa eta dintelik gabea



5) Albokoa eta dintelduna



6) Kutxa formakoa



7) Pasabide itxi baten barnekoa, Vitoria kalean (pribatutasunerako muturreko joera)



Aipatu bezala, atarien morfologia ondo ezagutzea oso lagungarria izan daiteke kronotipologiak ezartze aldera. Hala ere, atariak izaten dira denboran zehar aldaketa gehienak jasaten dituztenak. Ataria etxebizitza-blokeak espazio publikoarekin harremana duen elementu nagusia da eta auzokideek euren prestigioa edo bizi-kalitatea erakusteko erabiliak izaten dira ere. Horregatik, marmolez estalitako atariak nagusituz joan izan dira, adreiluzko estaldura zaharrak suntsituz –fenomeno honek inposatutako diseinu originalarekiko atxikimendu eskasa demostratzen duelarik, hau da, planifikatutako morfologiek, askotan, auzokideon nahiak asetzeko gaitasunik izan ez dutela. Bestalde, Zaramaga zaharkitze demografikoko prozesu betean sartuta dagoen auzoa da eta etxebizitzetarako irisgarritasuna hobetu nahian, hainbat atari erreformatuak izan dira: eskailerak desagerrarazi, igogailua jarri, 0 kotara jaitsi, etab. Dena dela, hegoaldeko eta mendebaldeko blokeek atarien erreformatuak joera argiagoa erakutsi izan duten bitartean, iparraldekoetan (2. eta 3. kategoriakoak) diseinu originala maiz mantendu egin da. Bloke desberdinen maila sozioekonomikoen arabera ote da ataria erreformatzeko ala mantentzeko irizpide nagusia? Hegoaldeko eta mendebaldeko blokeetan prestigiozko dinamika horiek indarrean egon diren bitartean, iparraldekoetan dinamika horiek eman ez direla edo modu horretan garatu ez direla pentsa daiteke.

5.2.3.- Etxebizitza-plakak

Azkenik, materialtasunaren azterketa honen beste alorretako bat etxebizitza-plakena izan da. Aipatu bezala, Erregimenaren aparatu propagandistikoaren logiken barne ulertu behar ditugu eta horrek euren potentzialtasun sinbolikoa irudikatzen du. Hiru mota izan dira ikerketa-lan honetan bereiztu ditugunak. Lehenengo bi motei dagokionez, beste ikerketa batean ezarritako tipologia izan da erabilitakoa (González de Langarica & López de Maturana 2008: 93-94). Horrela, *Instituto Nacional de la Vivienda* delakoarenak aztertzeke, batzuk “MV1” eta besteak “MV13” bezala aztertuak izan dira. Biak Etxebizitza Ministeriokoak dira eta etxebizitza-bloke bat, 1954ko legearen arabera, errenta mugatuaren erregimenaren pean eraikia izan zela irudikatzen dute. Beste plaka motari dagokionez, Udal Aurrezki Kutxaren parte zen “Asociación N^a S^a Virgen Blanca” elkartearenak dira eta hauek maiz mantendu egin izan dira. González de Langarica eta López de Maturana ikertzaileek egindako katalogoan ez zaie erreferentziarik egiten, baina gure ikerketan aipatzeko modukotzat hartzen dira Erregimenaren funtzionamendu instituzional eta finantzariaren lekukoak direlako.



MV1 (Vitoria, 32)



MV13 (Llodio plaza, 3)




Kendutako plakak utzitako hutsunea (Laguardia, 56)

14. irudia: Etxebizitza-plaka motak



"Asoc. N.ª S.ª Virgen Blanca" (Zuya, 3)




15. irudia: Etxebizitza-plakaren banaketa espaziala

Plaken kokapena erregistro batean antolatu eta mapa bat osatuz, hainbat konklusio atera daitezke. Lehenengo eta behin, hobekien mantendu egin direnak “Asociación N^a S^a Virgen Blanca” delakoarenak izan dira eta hau bere ikonografiarekin lotu daiteke: ez dute frankismoarekin zuzenean lotutako sinbolorik eta horrek ikusezinago bihurtu omen ditu. “MV1” eta “MV13” delakoen kasuan, hauetan uztarrria eta geziak agertzen dira eta horrek polemikoago bilakatzen ditu. Zentzu horretan, hain esanahi politiko garbia duten plaka hauek mantendu ala kentzea “logika politiko” baten barne uler daiteke. 2. eta 3. kategoriako bloke xumeetan desagertu egin izan dira eta zenbaitetan kendu izan zutenekoaren ebidentzia material argiak topatu daitezke – horman utzitako hutsunea, silueta markatuta geratu delarik. Kendutakoen artean, bi kasu azpimarratzeko modukoak dira, biak iparraldeko etxebizitza-blokeen harresi modukoan daudelarik. Hauetan, bizi-baldintza okerreztan kontzientziaturik, bertako auzokideek plaka horiek kentzea “insubordinazio ekintza” bezala har daiteke? Izan ere, aipatutako blokeen azpiko pasabide bateko goiburuan, kendutako plaka baten marka antzematen da (ikusi 11. irudia, Laguardia 24). Gamarra-Betoñoko lantegietatik etxerako bueltan, langileek egunero ikusi beharreko ikurra zen hori, baina gaur egunera haren hutsunea izan da heldu dena, norbaitek kendu izanaren marka.

Plakak mantentzea, esan bezala, “hautu politiko” lez uler daiteke ere. Eta, non mantendu dira Etxebizitza Ministerioaren plakak? Aipatutako etxebizitza-multzo batean, Vitoria kaleko 24, 26, 28, 30, 32 eta 34. zenbakiak biltzen dituen multzoan, esaterako. Tipologikoki deigarriak diren blokeak dira (ikusi 13. irudia, 7. figura), altuera baxuagoa dutelako, kalitate maila altukoak direlako eta espazio pribatu partekatu anitzak dituztelako. Etxebizitza hauek ez dute zerikusirik iparraldeko bloke masibo eta sinpleekin: hauetan, erosotasunaren aldeko apustu garbia egin zela pentsa daiteke. Bestalde, kalearekiko eta espazio publikoarekiko lotura txikiagoa erakusten dute, zenbait atari burdinezko hesi baten atzealdean, pasabide bat zeharkatuz, kokatzen direlako. Zaramagaren barneko *eliteentzako* gune baten aurrean gaude? Etxebizitza hauen izaera pribilegiatuak zerikusirik ote du frankismoaren plakak mantentzearekin? Zer-nolako pertzepzioa nagusituko ote da etxe horietako bizilagunen artean? Ikerketa honetarako ezinezkoa izan da galdera hauentzako erantzunik topatzea, baina bidea zabalik dugu.

6.- KONKLUSIOAK

Modernitatearen proiektu sozial eta ideologiko handia izan zen Zaramaga. Ikusi dugun bezala, Erregimenak bere interesen arabera diseinatu eta antolatu egin zuen. Langilegoarentzat lortutako bizi-kalitate altua azpimarratzen da frankismoaren dokumentazioan eta Zaramaga eredugarritzat hartua izan zen, “Urrezko Auzoa” bezala propagandistikoki deitua zelarik (Elena Perea auzokidearen testigantza, 2015eko martxoaren 13an). Materialtasunaren eta orden espazialaren bidez, Erregimenak idealtzat jotzen zituen familia-ereduak bilatu nahi zituen. Baina arrakastatsua izan ote zen *ingeniaritza sozialeko* proiektu hau?



16. irudia: Zaramagako borroka historikoen memoria-guneak

Galdera hau beste ikerketetarako irekita utzi beharko dugu, baina hainbat datu kontuan hartzeko modukoak dira. 1976ko martxoaren 3ko sarraski poliziala Zaramagan eman zen, San Frantzisko elizaren ondoan, eta biktimen artean *Forjas Alavesaseko* langileak zeuden bezala, langile-azulo zuzendu hauetako biztanleak ziren. Erregimenak bizimodu alienatu eta gidatu batera mugatu nahi zituen arren, langileek euren ahotsa entzunarazten saiatu ziren eta 1970. hamarkadak hainbat langile-borroka ezagutuko ditu. Zaramaga auzoa buruhauste galanta izango da autoritate frankista eta post-frankistentzat. Beraz, ezin dirudi langilegoaren subordinazio

plana arrakastatsua izan zenik. Bestalde, 1980ko hamarkadan, drogaren auziak ere gogor kolpatu zuen auzoa eta horrek familia-eredu idealengan arrakala historiko bat eman zela suposatzen du. Azkenik, gaur egungo familia gazteek auzoa utzi eta beste

nukleo berrietara lekualdatzen dira. Zaramagak zaharkitze demografikoko prozesu basatia bizi du eta horrek proiektu sozialaren amaiera markatuko luke.

Auzoaren etorkizuneko biziraupena kolokan dago eta soluziobideak topatzea oso konplexua da. Izan ere, ikerketa-lan honetan, ebidentzia material eta espazialen bidez demostratzen saiatu garen bezala, Zaramagako arazoek iturburu estrukturalak dituzte eta horrek irtenbide estrukturaletan pentsatu behar dela esan nahi du. Mota honetako espazioak “ondare” kontzeptutik at daude (EHAA 1990), baina euren potentzialtasun pedagogikoa oso handia da eta ustiatu beharko genuke, hain zuzen ere, porrotean amaitu diren Modernitatearen proiektu autoritarioak zalantzan jartzeko eta memoria historikoari buruzko eztabaida biziberritzeko. Paradoxa da Zaramaga bezalako auzoak definitzen dituen elementuetako bat: hamarkada gutxi batzuetan, erreferente utopiko, ideal eta propagandistiko bat izatetik, ukitu distopikoko buruko minak eragiten dituen hutsegite espazioa izatera (Harrison 2009: 4). Paradoxa hauek seinaltzeko unea heldu zaigu arkeologoi: egunerokotasunaren botere-mekanismoak materialki salatze gaitasun kritikoa dugu eta zuzentasunez erabili beharko genuke.

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia: Zaramaga auzoaren kokapena. (Moldaketa propioa).
2. irudia: Biztanleria erroldatuaren jatorria (1950; 1975). (Moldaketa propioa. Datuen iturria: Zárate Martín 1981: 298).
3. irudia: Vitoria kalea, Zaramaga (1970). (Iturria: C.V._C.M._Caja Municipal,S.1,SS.6.7_0077)
4. irudia: Gasteizeko autoritateak Zaramagako maketa behatzen. (Iturria: Gasteizko Udal Boletina, 1959/01/01).
5. irudia: Klase sozialak eta etxebizitza-kategoriak (Blein Plana, 1957). (Moldaketa propioa. Datuen iturria: Blein Plana, AMVG 0.4/2337-5).
6. irudia: Etxebizitza-kategorien mapa (Blein Plana, 1957). (Moldaketa propioa. Plano originala: AMVG 0.4/2337-4).
7. irudia: Eraikuntza-faseen mapa (Blein Plana, 1957). (Moldaketa propioa. Plano originala: AMVG 0.4/2337-4).
8. irudia: Francok etxebizitzan jabetza-tituluak eskaintzen dizkie egoiliar berriei (1964ko abuztua). (Iturria: C.V._C.M._Caja Municipal,S.2,S.3.8_0023).
9. irudia: 1968ko ortoirudia. (Iturria: IDE-Álava).
10. irudia: Konbergentzia-mapak, lerro axialen bidez. (Moldaketa propioa).
11. irudia: Etxebizitza-blokeen azpiko pasabideak. (Iturria: argazki propioak).
12. irudia: Etxebizitza-blokeak, kronotipologien arabera. (Moldaketa propioa).
13. irudia: Atari mota nagusien tipologia. (Iturria: argazki propioak).
14. irudia: Etxebizitza-plaka motak. (Iturria: argazki propioak).
15. irudia: Etxebizitza-plaken banaketa espaziala. (Moldaketa propioa).
16. irudia: Zaramagako borroka historikoen memoria-guneak. (Iturria: argazki propioak).

LABURDUREN AURKIBIDEA

- AMVG: Archivo Municipal de Vitoria-Gasteiz / Vitoria-Gasteizko Udal Artxiboa.
- C.V._C.M.: Caja Vital _ Caja Municipal; Vital Kutxa Fototeka (Sancho el Sabio Fundazioa)

<http://archinet.fsancho-sabio.es:8080/ArchiDocWeb/action/manageVistaCuadroClasificacion?actionToPerform=home> (2015eko maiatzaren 15ean kontsultatua).

- IDE-Álava: Infraestructura de Datos Espaciales de Araba/Álava (Arabako Foru Aldundia)

<http://www.ide-alava.com/dfa/index#> (2015eko ekainaren 1ean kontsultatua).

AIPATUTAKO AHOZKO ELKARRIZKETAK

- Elena Perea (Zaramagako auzokia, 2015eko martxoaren 13an egindakoa).

BIBLIOGRAFIA

- ALONSO, P. (2010): “Arqueología contemporánea y de la postmodernidad: gestión e interpretación en Val de San Lorenzo (León)”. *Arqueoweb*, 12 (1).
- ARRIOLA, P. M. (1991): *La producción de una ciudad-máquina del capital: Vitoria-Gasteiz*, EHU, Bilbo.
- AYÁN, X. (2003): “Arquitectura como tecnología de construcción de la realidad social”. *Arqueología de la Arquitectura*, 2, 17-24.
- AYÁN, X. (2014): “El Patrimonio de los vencidos: arqueología en comunidades subalternas”. *Tejuelo*, 19, 109-142.
- AZKARATE, A. (2008): “La Arqueología de la Arquitectura en el siglo XXI”. *Arqueología de la Arquitectura*, 5, 11-13.
- BELFORD, P. (2006): “The world of the workshop: archaeologies of urban industrialisation”. In GREEN, A. & LEECH, R. (ed.): *Cities in the world, 1500-2000*, Maney Publishing, Leeds, 133-149.

- BERMEJO TIRADO, J. (2009): “Leyendo los espacios: una aproximación crítica a la sintaxis espacial como herramienta de análisis arqueológico”. *Arqueología de la Arquitectura*, 6, 47-62.
- BORRA, A (2013): “Adiós a la inmigración. ¿Pueden hablar los sujetos migrantes?”. *Ecléctica: Revista de estudios culturales*, 2, 34-49.
- BOX, Z. (2011): “Haciendo patria. La arquitectura al servicio de la nación durante el primer franquismo”. In BARRIO ALONSO, A. [et al.] (koord.): *Nuevos horizontes del pasado: culturas políticas, identidades y formas de representación*, Publican, Santander, 20.
- BUCHLI, V. & LUCAS, G. (2001): “The absent present. Archaeologies of the contemporary past”. In BUCHLI, V. & LUCAS, G. (koord.): *Archaeologies of the Contemporary Past*, Routledge, Londres/New York, 3-18.
- CARNICERO, C. (2009): “De la calma a la ‘revolución’. La conflictividad laboral en el final de la dictadura, 1966-1975”. In RIVERA, A. (zuz.): *Dictadura y desarrollismo. El franquismo en Álava*, Gasteizko Udala, Gasteiz, 255-290.
- CARRERAS, A. & TAFUNELL, X. (2010): *Historia económica de la España contemporánea (1789-2009)*, Crítica, Bartzelona.
- CARVAJAL, A.; MARTÍN, I. & SÁNCHEZ, A. (2011): “Reflexiones sobre la función social de la historia: Hobsbawm, Thompson y Kocka”. *El Futuro del Pasado*, 2, 265-281.
- CORTÉS, L. (2009): “El espacio residencial como marco analítico para el estudio de la diversidad urbana: el caso de Madrid”. In URRUTIA, V. [et al.] (ed.): *Las dimensiones sociales de la ciudad*, EHU, Bilbo, 59-85.
- DE TERÁN, F. (1982): *Planeamiento urbano en la España contemporánea (1900-1980)*, Alianza, Madril.
- DOMÈNECH, X. (2003): “La otra cara del milagro español. Clase obrera y movimiento obrero en los años del desarrollismo”. *Historia Contemporánea*, 26, 91-112.
- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA) (1990/08/06): *7/1990 Legea, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondareari Buruzkoa*, 157.

- FERNÁNDEZ ALBA, A. (1986): *Crónicas del espacio perdido: la destrucción de la ciudad en España, 1960-1980*, Ministerio de Obras Públicas y Urbanismo, Madril.
- FERNÁNDEZ DE BETOÑO, U. (2010): “Gizarte-espazioaren eraikuntza. Europar etxebizitza sozialen historia laburra”. *Aldiri: arkitektura eta abar*, 1, 8-11.
- FERNÁNDEZ DE BETOÑO, U. (2014): *Hirigintzaren oinarriak*, EHU, Bilbo.
- FOUCAULT, M. (1990) [1975]: *Vigilar y castigar*, Siglo XXI, Madril.
- GALINIÉ, H. (2012): *Ciudad, espacio urbano y arqueología. La fábrica urbana*, Universitat de València, Valentzia.
- GARCÍA-RASO, D. (2010): “De la basura a las nuevas tecnologías. Base bibliográfica para un estudio de cultura material contemporánea”. *Arqueoweb*, 12(1), 164.
- GARCÍA GÓMEZ, I. (2009): “Sistemas complejos y arqueología. Una aproximación teórica al fenómeno urbano”. *Arqueología de la arquitectura*, 6, 63-92.
- GARCÍA-ZUÑIGA, M. (2009): “El desarrollo antes del desarrollismo. La industrialización de Álava”. *Revista de Historia Industrial*, 41, 91-124.
- GASTEIZKO UDALA (1959-01-01): *Boletín Municipal de Vitoria*, 1.
- GASTEIZKO UDALA (2015): *Informe de Población Vitoria-Gasteiz 2015. Movimientos demográficos 2014*.
- GONZÁLEZ DE LANGARICA, A. (2007): *La ciudad revolucionada. Industrialización, inmigración, urbanización (Vitoria, 1946-1965)*, Gasteizko Udala, Gasteiz.
- GONZÁLEZ DE LANGARICA, A. (2008): “Vitoria durante el Franquismo. El tercer modelo de industrialización vasca (1946-1976)”. In NICOLÁS, M. E. & GONZÁLEZ, C.: *Ayeres en discusión: temas clave de Historia Contemporánea hoy*, Universidad de Murcia, Murtzia, 85.
- GONZÁLEZ DE LANGARICA, A. (2008): “Concejales y empresarios. La industrialización de Vitoria y su ayuntamiento (1946-1976)”. *I Encuentro de Jóvenes Investigadores en Historia Contemporánea de la Asociación de Historia Contemporánea: Zaragoza, 26,27 y 28 de septiembre de 2007*, Universidad de Zaragoza, Zaragoza.

- GONZÁLEZ DE LANGARICA, A. & LÓPEZ DE MATURANA, V. (2008): *Catálogo de símbolos y monumentos públicos existentes en Euskadi que supongan una exaltación de la Guerra Civil y de la dictadura*, Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz.
- GONZÁLEZ RUIBAL, A. (2003): *La experiencia del Otro. Una introducción a la etnoarqueología*, Akal, Madril.
- GOULD, R. A. & SCHIFFER, M. B. (ed.) (1981): *Modern material culture. The archaeology of Us*, Academic Press, New York.
- HARRISON, R. (2009): "Towards an Archaeology of the Welfare State in Britain, 1945-2009". *Archaeologies*, 5(2), 238-262.
- HARVEY, D. (2014) [1973]: *Urbanismo y desigualdad social*, Siglo XXI, Madril.
- HERNANDO, A. (2002): *Arqueología de la identidad*, Akal, Madril.
- LE CORBUSIER & SERT, J. L. (1942): *Carta de Atenas* [online baliabidea] http://blogs.unlp.edu.ar/planificacionktd/files/2013/08/1942_carta_de_atenas-1933.pdf (2015aren ekainaren 15ean kontsultatua)
- *Ley de 12 de mayo de 1956 sobre régimen del suelo y ordenación urbana* (1956ko maiatzak 14), BOE, 135.
- LEFEBVRE, H. (2013) [1974]: *La producción del espacio*, Capitán Swing, Madril.
- LÓPEZ CARRERA, C. (2005): "La hermenéutica en la antropología, una experiencia y propuesta de trabajo etnográfico: la descripción densa de Clifford Geertz". *Ra Ximhai: revista científica de sociedad, cultura y desarrollo sostenible*, 1(2), 291-304.
- LÓPEZ DE MATURANA, V. (2013): "La construcción del imaginario simbólico en Vitoria durante el Franquismo: La alcaldía de Luis Ibarra (1957-1966)". *Sancho el Sabio*, 36, 209-232.
- LÓPEZ DE MATURANA, V. (2014): *La reinención de una ciudad. Poder y política simbólica en Vitoria durante el franquismo (1936-1975)*, EHU, Bilbo.
- MAÑANA, P.; BLANCO, R. & AYÁN, X. (2002): *Arqueotectura 1: Bases teórico-metodológicas para una Arqueología de la Arquitectura*, TAPA: Trabajos de Arqueología e Patrimonio, Santiago de Compostela.
- MAS SERRA, E. (2005): "El urbanismo del período desarrollista en las capitales vascas". *RIEV*, 50 (2), 443-491.

- MIGNOLO, W. (2003): *Historias locales / diseños globales. Colonialidad, conocimientos subalternos y pensamiento fronterizo*, Akal, Madril.
- MURUA, H.; GARMENDIA, J. & ZABALETA, I. (2013): “La Formación Profesional en Álava/Araba, 1936-1975”. *Sancho el Sabio*, 36, 233-256.
- NICOLÁS, D. (2003): “Arquitectura y urbanismo en los inicios de la Murcia contemporánea”. *Murgetana*, 109, 91-110.
- ORTIZ LLANA, J. (koord.) (1976): *Los barrios de Vitoria y su significado en el contexto político, económico y social*, Delegación Provincial de Sindicatos de Álava, Gasteiz.
- RAMÓN, F. (1974): *La ideología urbanística*, Alberto Corazón Editor, Madril.
- SÁENZ DEL CASTILLO, A. (2009): “Las damas del hierro. El proceso industrializador desde una perspectiva de género, 1950-1975”. In RIVERA, A. (zuz.): *Dictadura y desarrollismo. El franquismo en Álava*, Gasteizko Udala, Gasteiz, 219-252.
- SAMUEL, R. (1996): *Theatres of memory. Volume I: Past and present in contemporary culture*, Verso, Londres/New York.
- SARRIONANDIA, J. (2011): *Narrazio guztiak (1979-1990)*, Elkar, Donostia.
- SHANKS, M. (2008): “Arqueología pública”. In RENFREW, C. & BAHN, P. (ed.): *Arqueología: conceptos clave*, Akal, Madril, 123-129.
- ZÁRATE MARTÍN, M. A. (1981): *Vitoria: transformación y cambio de un espacio urbano*, Boletín de la Institución Sancho el Sabio (25), Gasteiz.